

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hezkuntzak 70.000 euroekin finantzatuko du Nafarroako ondarea eta artea ikertu eta zabaltzea

Xede horretarako, Nafarroako Unibertsitatearekin lankidetzaz hitzarmena sinatu du hamabost bat ziklo, hitzaldi, kongresu eta ekintza egiteko

Lunes, 09 de marzo de 2015

Hezkuntza Departamentuak 70.000 euroekin finantzatuko ditu 2015 ean egingo diren irakaskuntza, ikerketa eta zabalkunderako hamabost bat ekintza. Ekintza horiek Nafarroako Unibertsitateko Nafarroako Ondarearen eta Artearen Katedrak sustatu ditu.

Xede horrekin, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateen zuzendari nagusi David Herrerosek lankidetzaz hitzarmena sinatu du unibertsitate horretako errektore Alfonso Sánchez-Tabernerorekin.

Testuak jasotzen duenez, hitzarmenaren helburua Nafarroako monumentu-ondarearen eta ondare artistikoaren ezagutzan eta zabalkunde sakontzea da; horrenbestez, herritarrek bere iragan historikoaren herentzia materiala zein den jakin ahalko dute.

Beste ekintza batzuen artean, honako hauek jasoko dute diru-laguntza: arte garaikideari buruzko zikloak; Tulebrasko monasterioak; Baztan ibarreko kultur ondareak eta Julián Gayarre Erronkariko tenorearen heriotzaren 125. urteurrenak, Nafarroako Barrokoaren gaineko udarikastaro batekin batera.

Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultateari atxikitutako Nafarroako Ondarearen eta Artearen Katedra hamar urte daramatza Foru Komunitateko kultura eta ondarea ikertzen eta sustatzen.